| **ETXEBIZITZA BAKOITZEKO KATASTROAREN GEHIENEZKO BALIOA (eranskinak barne)/** ***VALOR CATASTRAL MAXIMO VIVIENDA (incluidos anexos)*** | **SEME/ALABEN KOPURUA./** ***NUM. HIJOS*** | **HOBARIA/** ***BONIFICACION*** |
|---|---|---|
| 172.303 € | 3 | % 50 |
| 206.764 € | 4 | % 75 |
| 241.223 € | 5 /eta gehiago/y más | % 75 |

Etxebizitza bakoitzeko katastroaren gehienezko balioa, eranskinak barne, handitu egingo da 2014rako izan litekeen katastro balioaren igoerari dagokion kopuruan.

El valor catastral máximo vivienda, incluidos anexos, se aumentara en el importe correspondiente a la posible subida del valor catastral para el año 2014.

Era berean ondorengo karga-tasa aldatuak onartzea proposatzen da:

Asimismo se propone la aprobación de los siguientes tipos de gravamen modificados**:**

**1. Hiri Ondasun Higiezinen gaineko zerga.**

**1. Impuesto sobre bienes inmuebles de naturaleza urbana:**

**a) Industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden hiri-ondasunak.**

Karga mota: %0,5808

**a) Bienes Urbanos situados en suelo industrial o terciario.**

Tipo de gravamen: 0,5808 %

**b) Gainerako hiri-ondasunak.**

Karga mota: %0,2543

**b) Resto de Bienes Urbanos**

Tipo de gravamen: 0,2543%

**2. Landa Ondasun Higiezinen gaineko Zerga:**

Karga mota: %1,10

**2. Impuesto sobre bienes inmuebles de naturaleza rústica:**

Tipo de gravamen: 1,10%

**Tasak handitzeko arauak:**

2014rako proposatutako %1,9ko karga-tasa igoera, murriztu egingo da 2014rako izan litekeen katastro balioaren igoerari dagokion kopuruan.

**Normas de aplicación del incremento de tipos:**

El aumento de tipo de gravamen propuesto del 1,9% para el 2014 se reducirá en el importe correspondiente a la posible subida del valor catastral para el año 2014



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 🖂 udala@hondarribia.org

**BIGARREN.-** Aurreko erabakia, hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, dagozkion erreklamazio edo oharpideak aurkez ditzaten.

**SEGUNDO.-** Someter a información pública, por plazo de treinta días hábiles, el acuerdo precedente a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran producirse.

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.

**8.- TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ALDATZEARI BURUZKO AKORDIO PROPOSAMENA.**

**8.- PROPUESTA DE ACUERDO SOBRE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA.**

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuengatiko Zerga Arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzeko izapidetutako espedientea azterturik.

Examinado el expediente incoado para la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

Udal Kontuhartzaileak 2013ko urriaren 3an egindako txostena ikusi da, proposatutako aldaketa indarrean dagoen legeriarekin bat datorrela dioena eta bete beharreko izapideei buruzkoa dena.

Visto el informe de la Interventora Municipal de fecha 3 de octubre de 2013, sobre la adecuación a la legislación vigente de la propuesta de modificación y la tramitación a seguir.

Era berean, Ogasun, Kontu eta Ondare Batzordeak aldaketen onarpena proposatuz 2013ko urriaren 3an emandako diktamena ikusi da.

Visto, asimismo, el dictamen emitido por la Comisión de Hacienda, Cuentas y Patrimonio con fecha 3 de octubre de 2013, proponiendo la aprobación de las modificaciones.

Proposamena bozkatu eta onartu da, aldeko hamar botorekin eta aurkako laurekin.

Sometida a votación la propuesta, es aprobada por diez votos a favor y cuatro en contra.

Alde bozkatu dute: Aitor Kerejeta Cid, Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Juan Luis Silanes Agirre, Katrin Martínez De la Valle, Ion Elizalde Caballero eta Jose Miguel Ochoteco Aguirre jaun-andreek.

Votan a favor: D. Aitor Kerejeta Cid, D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, Dª Lupe Olaskoaga Susperregi, Dª Amaya Gezala Ortiz, Dª Maite Pelaez Arregi, D. Juan Luis Silanes Agirre, Dª Katrin Martínez De la Valle, D. Ion Elizalde Caballero y D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre.

Aurka bozkatu dute: Jon Mikel Garmendia Múgica, Catherine J.A. Noblia Richard, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui eta Ramon Laborda Larzabal jaun-andreek.

Votan en contra: D. Jon Mikel Garmendia Múgica, Dª Catherine J.A. Noblia Richard, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui y D. Ramon Laborda Larzabal



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

Horren ondorioz, **Udalbatzak** gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU:**

**LEHENENGO.-** Trakzio Mekanikozko Ibilgailuengatiko Zerga Arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketari hasierako onespena ematea. Aldaketa horiek ondokoak dira:

2,365 koefizientea ezartzea, tarifak ondoren agertzen diren moduan geratuz:

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría, **ACUERDA**:

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto Sobre Vehículos de Tracción Mecánica, en el sentido siguiente:

Aplicar el coeficiente de 2,365. Quedando las tarifas como siguen:

**TARIFA**

**Ibilgailu mota eta indarra /** ***Potencia y clase de vehículos:***

| **A) Turismoak/*Turismos:*** | **Kuota** |
|---|---|
| – 9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak.<br>*De menos de 9 caballos fiscales* | 43,49 |
| – 9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak.<br>*De 9 hasta 11,99 caballos fiscales* | 86,98 |
| – 12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak<br>*De 12 hasta 13,99 caballos fiscales* | 144,97 |
| – 14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak<br>*De 14 hasta 15,99 caballos fiscales* | 202,96 |
| – 16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak.<br>*De 16 hasta 19,99 caballos fiscales* | 260,95 |
| – 20 zaldi fiskala baino gehiagokoak<br>De 20 caballos fiscales en adelante | 318,94 |

| **B) Autobusak*Autobuses:*** | **Kuota** |
|---|---|
| – 21 plaza baino gutxiagokoak.<br>*De menos de 21 plazas* | 197,00 |
| – 21etik 50 plaza bitartekoak.<br>*De 21 a 50 plazas* | 280,58 |
| – 50 plaza baino gehiagokoak.<br>*De más de 50 plazas* | 350,72 |



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 🖂 udala@hondarribia.org

| C) **Kamioiak/*Camiones*** | **Kuota** |
|---|---|
| – Karga erabilgarria 1000 kg. baino gutxiagokoak.<br>*De menos de 1000 kg. de carga útil* | 99,99 |
| – Karga erabilgarria 1000 kg.tik 2999 bitartekoak.<br>*De 1000 kg. a 2999 kg. de carga útil* | 197,00 |
| – Karga erabilgarria 2999 kg.tik 9999 bitartekoak.<br>*De más de 2999 a 9999 kg. de carga útil* | 280,58 |
| – Karga erabilgarria 9999 kg. baino gehiagokoak.<br>*De más de 9999 kg. de carga útil* | 350,72 |

| D) **Traktoreak/*Tractores:*** | **Kuota** |
|---|---|
| – 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak.<br>*De menos de 16 c. Fiscales* | 41,78 |
| – 16tik 25 zaldi fiskal bitartekoak.<br>De *16 a 25 c. Fiscales* | 65,67 |
| – *25 zaldi fiskal baino gehiagokoak*<br>*De más de 25 c. Fiscales* | 197,00 |

| E) **Trakzio mekanikozko ibilgailuak herrestan eramandako atoi eta erdi atoiak/*Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica:*** | **Kuota** |
|---|---|
| – Karga erabilgarria 1000 kg. tik baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiago bitartekoak.<br>*De menos de 1000 kg. y más de 750 kilos de carga útil* | 41,78 |
| – Karga erabilgarria 1000tik 2999 kg. bitartekoak.<br>*De 1000 a 2999 kg. de carga útil* | 65,67 |
| – Karga erabilgarria 2999 kg. baino gehiagokoak.<br>*De más de 2999 kg. de carga útil* | 197,00 |

| F) **Bestelako ibilgailuak/*Otros vehículos:*** | **Kuota** |
|---|---|
| – Ziklomotorrak.<br>*Ciclomotores* | 10,66 |
| – 125 z.k. bitarteko motozikletak.<br>*Motocicletas hasta 125 c.c.* | 10,66 |
| – 125 z.k.tik 250 bitarteko motozikletak.<br>*Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c* | 18,25 |
| – 250 z.k.tik 500 bitarteko motozikletak.<br>*Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c.* | 36,53 |
| – 500 z.k.tik 1000 bitarteko motozikletak<br>*Motocicletas de más de 500 hasta 1000 c.c* | 73,07 |
| – 1000 z.k. baino gehiagoko motozikletak<br>*Motocicletas de más de 1000 c.c* | 146,13 |



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

**BIGARREN.-** Aurreko erabakia, hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, dagozkion erreklamazio edo oharpideak aurkez ditzaten.

**SEGUNDO.-** Someter a información pública, por plazo de treinta días hábiles, el acuerdo precedente a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran producirse.

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.

**9.- ERAIKUNTZA, INSTALAPEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

**9.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.**

Eraikuntza, Instalapen eta Obren Gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzeko irekitako espedientea azterturik.

Examinado el expediente incoado para la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Udal Kontuhartzaileak 2013ko urriaren 3an egindako txostena ikusi da, proposatutako aldaketa indarrean dagoen legeriarekin bat datorrela dioena eta bete beharreko izapideei buruzkoa dena.

Visto el informe de la Interventora Municipal de fecha 3 de octubre de 2013, sobre la adecuación a la legislación vigente de la propuesta de modificación y la tramitación a seguir.

Era berean, Ogasun, Kontu eta Ondare Batzordeak aldaketen onarpena proposatuz 2013ko urriaren 3an emandako diktamena ikusi da.

Visto, asimismo, el dictamen emitido por la Comisión de Hacienda, Cuentas y Patrimonio con fecha 3 de octubre de 2013, proponiendo la aprobación de las modificaciones.

Proposamena bozkatu eta onartu da aldeko hamalau botorekin.

Sometida a votación la propuesta, es aprobada por catorce votos a favor.

Alde bozkatu dute: Aitor Kerejeta Cid, Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Juan Luis Silanes Agirre, Katrin Martínez De la Valle, Ion Elizalde Caballero, Jose Miguel Ochoteco Aguirre, Jon Mikel Garmendia Múgica, Catherine J.A. Noblia Richard, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui eta Ramon Laborda Larzabal jaun-andreek.

Votan a favor: D. Aitor Kerejeta Cid, D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, Dª Lupe Olaskoaga Susperregi, Dª Amaya Gezala Ortiz, Dª Maite Pelaez Arregi, D. Juan Luis Silanes Agirre, Dª Katrin Martínez De la Valle, D. Ion Elizalde Caballero, D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre, D. Jon Mikel Garmendia Múgica, Dª Catherine J.A. Noblia Richard, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui y D. Ramón Laborda Larzabal.



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

Horren ondorioz, **Udalbatzak** aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad, **ACUERDA**:

**LEHENENGO.-** Eraikuntza, Instalapen eta Obren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketari hasierako onespena ematea. Aldaketa ondokoa da:

1 Eranskina aldatzea, ondoko tarifak beherantz jaitsiz:

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, en el sentido siguiente:

Modificar el Anexo 1 modificando a la baja las tarifas siguientes:

**TARIFA /** *TARIFA*

| **ERAIKUNTZA, INST. ETA OBRA MOTAK /** *CLASE DE CONST., INST. Y OBRAS* | **Karga –Tasa** *Tipo De Gravamen* |
|---|---|
| ▪ Alde Zaharreko etxeak birgaitu eta/edo eraberritzeko obrak (arauen mugapenaren arabera).<br>*Obras de rehabilitación y/o renovación de edificios existentes en el Casco Antiguo* (según delimitación de las normas). | 1 % |
| ▪ Birgaitze eta berritze lanak, arkitektura, arkeologia eta etnografia alderdietan interesa duten Portu Auzoko eraikinetan, Hondarribiko Arau Subsidiarioetan hirigintza ondare katalogatuan sartuta dauden higiezin eta osagai banakatuak erreferentzia gisa hartuz.<br>*Obras de rehabilitación y/o renovacion en los edificios de interés arquitectónico, arqueológicos y etnográficos sitos en Portu Auzoa, tomando como referencia los inmuebles y elementos desglosados incluidos en el patrominio urbanístico catalogado de las Normas Subsidiarias de Hondarribia.* | 1 % |
| ▪ Eraikuntzaren ikusketa teknikoaren ondorioz derrigortutako obrak.<br>*Obras de obligada realización a raiz de la Inspección Técnica de Edificios.* | 2 % |

**BIGARREN.-** Aurreko erabakia, hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, dagozkion erreklamazio edo oharpideak aurkez ditzaten.

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

**SEGUNDO.-** Someter a información pública, por plazo de treinta días hábiles, el acuerdo precedente a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran producirse.

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

**10.- JABARI PUBLIKOAREN ERABILPEN PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Jabari Publikoaren Erabilera Pribatibo edo Aprobetxamendu Bereziagatiko Tasak Arautzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzeko izapidetutako espedientea aztertu da.

Udal Kontuhartzaileak 2013ko urriaren 3an egindako txostena ikusi da, proposatutako aldaketa indarrean dagoen legeriarekin bat datorrela dioena eta bete beharreko izapideei buruzkoa dena.

Era berean, Ogasun, Kontu eta Ondare Batzordeak aldaketen onarpena proposatuz 2013ko urriaren 3an emandako diktamena ikusi da.

Proposamena bozkatu eta onartu da aldeko hamar botorekin, bi aurkako eta bi abstentziorekin.

Alde bozkatu dute: Aitor Kerejeta Cid, Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Juan Luis Silanes Agirre, Katrin Martínez De la Valle, Ion Elizalde Caballero eta Jose Miguel Ochoteco Aguirre jaun-andreek.

Aurka bozkatu dute: Jon Mikel Garmendia Múgica eta Catherine J.A. Noblia Richard jaun-andreek.

Abstenitu egin dira: Jesús Ignacio Alvarez Yeregui eta Ramon Laborda Larzabal jaun-andreak.

**10.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO**

Examinado el expediente incoado para la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasas por la Utilización Privativa o Aprovechamiento Especial del Dominio Público.

Visto el informe de la Interventora Municipal de fecha 3 de octubre de 2013, sobre la adecuación a la legislación vigente de la propuesta de modificación y la tramitación a seguir.

Visto, asimismo, el dictamen emitido por la Comisión de Hacienda, Cuentas y Patrimonio con fecha 3 de octubre de 2013, proponiendo la aprobación de las modificaciones.

Sometida a votación la propuesta, es aprobada por diez votos a favor, dos en contra y dos abstenciones.

Votan a favor: D. Aitor Kerejeta Cid, D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, Dª Lupe Olaskoaga Susperregi, Dª Amaya Gezala Ortiz, Dª Maite Pelaez Arregi, D. Juan Luis Silanes Agirre, Dª Katrin Martínez De la Valle, D. Ion Elizalde Caballero y D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre.

Votan en contra: D. Jon Mikel Garmendia Múgica y Dª Catherine J.A. Noblia Richard.

Se abstienen: D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui y D. Ramón Laborda Larzabal.



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

Horren ondorioz, **Udalbatzak** gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría, **ACUERDA**:

**LEHENENGO.-** Jabari Publikoaren Erabilera Pribatibo edo Aprobetxamendu Bereziagatiko Tasak Arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketari hasierako onespena ematea. Aldaketa horiek ondokoak dira:

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasas por la Utilización Privativa o Aprovechamiento Especial del Dominio Público, en el sentido siguiente:

## *A)* BIDE PUBLIKOA, MAHAI, AULKI ETA ANTZEKO TRESNERIAREKIN OKUPATZEA
*OCUPACIÓN DE VIA PUBLICA CON MESAS, SILLAS, VELADORES Y OTROS OBJETOS*

***Tarifen ezarpenerako arauak.***

Ordainagiriak urte osokoak eta zatiezinak izango dira.

Dena den, udalak eragindako lanak direla eta, bide publikoan baimendutako okupazioa burutzerik ez dagoenean, urteko tarifaren beherapena egingo da ondoko taularen arabera.

Maiatz, ekain, uztail eta abuztuko hilabetei dagokien kuota: urte osokoaren %70.

Gainontzeko hilabeteei dagokien kuota: urte osokoaren %30.

Likidazioaren beherapena okupazio egunen arabera burutuko da.

Urterako baimenez gain, salbuespen gisa eta aldez aurretik baimenduta (herriko jaiak eta abar), bide publikoa okupatu ahal izango da mahai, aulki, mahaitxoak eta beste gauza batzuekin, urteari dagokion kuotaren %5 ordainduz eguneko edo zatiko eta m2ko edo zatiko.

***Normas de aplicación de la tarifa.***

Los recibos se extenderán por año natural y serán indivisibles.

No obstante, cuando la ocupación de la via pública autorizada no puediera llevarse a efecto debido a la realización de obras promovidas por el Ayuntamiento, se procedera una disminución de la tarifa anual en base a la tabla siguiente:

Cuota correspondiente a los meses de mayo, junio, julio y agosto 70% de la cuota anual.

Cuota correspondiente al resto de meses 30% de la cuota anual.

La dismunición de la liquidación se hará teniendo en cuenta los días de ocupación.

Además de las autorizaciones anuales, excepcionalmente y previa autorización (fiestas patronales, etc.), se podrá permitir la ocupación de la vía pública con mesas, sillas, veladores y otros objetos, pagando en estos casos el 5% de la cuota anual correspondiente por m2 o fracción y día de ocupación o fracción.



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 ✉ udala@hondarribia.org

## I) TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK APARKATZEA
## *ESTACIONAMIENTO DE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA*

Alde zaharreko etxebizitzen jabe eta biztanleen txartelei dagozkien atalak baliogabetzea.

Anular los apartados correspondientes a tarjetas de residentes y propietarios de viviendas en Alde Zaharra.

*TARIFA EZARPENERAKO ARAUA*

Makinen ezaugarrien arabera eta beharrezkoa balitz tarifak beherantz borobilduko dira.

**A)** Minusbaliatuentzak aparkalekurako txartelen titularrak diren hondarribiko biztanleak garraiatzeko turismoak, tasak ordaintzetik salbuetsiak izango dira.

**B) Portu Auzoko biztanleek** (honekin batera doan planoaren arabera) Zirkulazio Zerga Udalerri honetan ordaintzen badute, eta udal zergak eta ordainketa guztiak egunean badituzte, etxebizitza bakoitzeko bi txartel eskuratuko ahal izango dituzte.

Urtean txartel bakoitzeko 30 Euro ordainduta, ondoko eskubidea izango dute:

T.A.O dohainik Portua, Foru, Minatera eta Bentan.

Urtean txartel bakoitzeko 20 Euro ordainduta, ondoko eskubideak izango dituzte:

T.A.O. dohainik Ramon Iribarren eta Hondartzako aparkalekuan.

**C) Hondarribiko biztanleek**, Zirkulazio Zerga Udalerrian ordaintzen badute, eta udal zerga eta ordainketa guztiak egunean badituzte, etxebizitza bakoitzeko bi txartel eskuratuko ahal izango dituzte.
Urtean txartel bakoitzeko 20 Euro ordainduta, ondoko eskubideak izango ditutzte:

*NORMAS DE APLICACION DE LA TARIFA*

En función de las características de las máquinas el redondeo de las tarifas si fuere necesario se realizará a la baja.

**A)** Turismos que transporten a personas titulares de tarjeta de estacionamiento para personas discapacitadas residentes en Hondarribia, estarán exentos del abono de tasas.

**B) Los residentes de la Marina** (según plano adjunto), que abonen el Impuesto de Circulación en el Municipio y estén al día en el pago de todos los impuestos y obligaciones municipales, tendrán derecho a dos tarjetas por vivienda.

Previo pago de 30 Euros anuales por tarjeta, tendrán derecho a:

OTA gratuita en zona Marina, Foru, Minatera y Venta.

Previo pago de 20 Euros anuales por tarjeta, tendrán derecho a :

OTA gratuita en Ramón Iribarren y parking zona playa.

**C) Los residentes en Hondarribia** que abonen el Impuesto de Circulación en el Municipio y estén al día en el pago de todos los impuestos y obligaciones municipales, tendrán derecho a dos tarjetas por vivienda.
Previo pago de 20 Euros anuales por tarjeta, tendrán derecho a:



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

T.A.O. dohainik Ramon Iribarren eta Hondartzako aparkalekuan.

OTA gratuita en Ramón Iribarren y Parking zona Playa.

Urtean txartel bakoitzeko 30 Euro ordainduta, ondoko eskubideak izango dituztze:

Previo pago de 30 Euros anuales por tarjeta, tendrán derecho a:

T.A.O. dohainik Ramon Iribarren, Hondartzako aparkalekua, Minatera eta Foru Kalean

OTA gratuita Ramón Iribarren, Parking playa, Minatera y Foru Kalea.

Eta Bentako aparkalekuan biztanleen tarifaren ezarpena.

Y aplicación de tarifas de residentes en el Parking de la Venta.

**D) Portuko Auzoko etxebizitzen jabeek** (honekin batera doan planoaren arabera) udal zergak eta ordainketa guztiak egunean badituzte, etxebizitza bakoitzeko bi txartel eskuratuko ahal izango dituzte.

**D) Los propietarios de viviendas en la Marina** (según plano adjunto) y que estén al día en el pago de todos los Impuestos y Obligaciones Municipales tendrán derecho a dos tarjetas por vivienda.

Urtean txartel bakoitzeko 60 Euro ordainduta, ondoko eskubideak izango dituztze:

Previo pago de 60 Euros anuales por tarjeta tendrán derecho a:

T.A.O. dohainik Portua, Ramon Iribarren, Foru Kalea, Minatera eta Bentan.

Hondartzako aparkalekua dohainik.

OTA gratuita en zona Marina, R. Iribarren, Foru Kalea, Minatera y Venta.

Parking de la zona Playa gratuito.

**E) Udalerriko etxebizitzen jabeek**, udal zergak eta ordainketa guztiak egunean badituzte, etxebizitza bakoitzeko bi txartel eskuratuko ahal izango dituzte.

**E) Los propietarios de vivienda en el resto del Término Municipal** y que estén al día en el pago de todos los Impuestos y Obligaciones Municipales, tendrán derecho a dos tarjetas por vivienda.

Urtean txartel bakoitzeko 40 Euro ordainduta, ondoko eskubideak izango dituztze:

T.A.O dohainik Ramon Iribarrenen, Foru eta Minatera Kalean.

Hondartzako aparkalekua dohainik.

Eta Bentako aparkalekuan biztanleen tarifaren ezarpena.

Previo pago de 40 Euros anuales por tarjeta tendrán derecho a:

OTA gratuita en Ramón Iribarren, Foru y Minatera Kalea.

Parking de la zona Playa gratuito

Y aplicación de tarifas de residentes en el Parking de la Venta.



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 📠 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

TAO arautzen duen Ordenantza 7. Artikuluak xedatutakoaren arabera Alkatetza-Lehendakaritzak emandako **ezaugarri bereziak**, etxebizitzen jabeentzat aipatutako kopuruak ordaindu beharko dituzte eta jabeentzako tarifa aurreikusia ez dagoenean soilik egoiliarrena ezarriko da.

Los **distintivos especiales** expedidos por la Alcaldía-Presidencia según lo dispuesto en el art. 7 de la Ordenanza Reguladora de OTA, abonarán los importes señalados anteriormente para los propietarios y solo en los casos en que no esté prevista la tarifa de propietarios se aplicará la de residentes.

**BIGARREN.-** Aurreko erabakia, hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, dagozkion erreklamazio edo oharpideak aurkez ditzaten.

**SEGUNDO.-** Someter a información pública, por plazo de treinta días hábiles, el acuerdo precedente a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran producirse.

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.

**11.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA ALDATZEKO PROPOSAMENA**

**11.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS O REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS.**

Zerbitzu Publikoak Eskaini edo Jarduera Administratiboak Burutzeagatik ordaindu beharreko Tasen Ordenantza Arautzailea aldatzeko izapidetutako espedientea aztertu da.

Examinado el expediente incoado para la modificación de la Ordenanza Reguladora de Tasas por Prestación de Servicios Públicos o Realización de Actividades Administrativas.

Udal Kontuhartzaileak 2013ko urriaren 3an egindako txostena ikusi da, proposatutako aldaketa indarrean dagoen legeriarekin bat datorrela dioena eta bete beharreko izapideei buruzkoa dena.

Visto el informe de la Interventora Municipal de fecha 3 de octubre de 2013, sobre la adecuación a la legislación vigente de la propuesta de modificación y la tramitación a seguir.

Era berean, Ogasun, Kontu eta Ondare Batzordeak aldaketen onarpena proposatuz 2013ko urriaren 3an emandako diktamena ikusi da.

Visto, asimismo, el dictamen emitido por la Comisión de Hacienda, Cuentas y Patrimonio con fecha 3 de octubre de 2013, proponiendo la aprobación de las modificaciones.

Proposamena bozkatu eta onartu da aldeko hamabi botorekin eta bi abstentziorekin.

Sometida a votación la propuesta, es aprobada por doce votos a favor y dos abstenciones.



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 📠 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

Alde bozkatu dute: Aitor Kerejeta Cid, Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Juan Luis Silanes Agirre, Katrin Martínez De la Valle, Ion Elizalde Caballero, Jose Miguel Ochoteco Aguirre, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui eta Ramon Laborda Larzabal jaun-andreek.

Votan a favor: D. Aitor Kerejeta Cid, D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, Dª Lupe Olaskoaga Susperregi, Dª Amaya Gezala Ortiz, Dª Maite Pelaez Arregi, D. Juan Luis Silanes Agirre, Dª Katrin Martínez De la Valle, D. Ion Elizalde Caballero, D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui y D. Ramón Laborda Larzabal.

Abstenitu egin dira: Jon Mikel Garmendia Múgica eta Catherine J.A. Noblia Richard jaun-andreak.

Se abstienen: D. Jon Mikel Garmendia Múgica y Dª Catherine J.A. Noblia Richard.

Horren ondorioz, **Udalbatzak** gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría, **ACUERDA**:

**LEHENENGO.-** Zerbitzu Publikoak Eskaini edo Jarduera Administratiboak Burutzeagatik ordaindu beharreko Tasen Ordenantza Arautzailearen aldaketari hasierako onespena ematea. Aldaketa horiek ondokoak dira:

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza Reguladora de Tasas por Prestación de Servicios Públicos o Realización de Activiades Administrativas, en el sentido siguiente:

**JARDUERA BAIMENAK ETA ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTZIAK EMATEA, BAI ETA SEKTOREKO LEGERIAN JASOTAKO BALDINTZAK BETE IZANA EGIAZTATZEKO JARDUERA EGITEA ERE, AURRETIAZKO BAIMEN EDO KONTROLARI LOTUTA EZ DAUDEN JARDUERAK DIRENEAN.**

*OTORGAMIENTO DE LICENCIAS DE ACTIVIDAD Y APERTURA DE ESTABLECIMIENTOS ASI COMO POR LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD DE VERIFICACION DEL CUMPLIMIENTO DE LOS REQUISITOS ESTABLECIDOS EN LA LEGISLACION SECTORIAL CUANDO SE TRATE DE ACTIVIDADES NO SUJETAS A AUTORIZACION O CONTROL PREVIO*

**HOBARIAK**

Alde Zaharrean kokaturiko establezimenduei dagozkien baimenak (honekin batera doan planoaren arabera) : % 50eko hobaria.

**BONIFICACIONES**

Licencias correspondientes a establecimientos sitos en Alde Zaharra, según plano adjunto, 50% de bonificación.



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

| **IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK ERRETIRATZEA ETA ONDORENGO ZAINTZA**<br><br>**SERVICIO DE RETIRADA DE VEHICULOS DE LA VIA PUBLICA Y SUBSIGUIENTE CUSTODIA DE LOS MISMOS** | |
|---|---|
| **1 Tarifa / *Tarifa 1***<br>**Ibilgailuak erretiratzea / *Por la retirada de vehículos:*** | **Euroak/ *Euros*** |
| *Turismo, furgoneta, kamioneta eta antzeko ezaugarriak dituzten ibilgailuak, beren tonelaia 1000 kg. artekoa denean, ibilgailu bakoitzagatik* / Automóviles de turismo, furgonetas, camionetas y demás vehículos de características análogas, con tonelaje de hasta 1000 kg., por cada vehículo. | 60 |

| **2 Tarifa / *Tarifa 2***<br><br>**Erretiratutako ibilgailuak jasotzeagatik / *Por la guarda de los vehículos retirados.*** | |
|---|---|
| 1. Tarifari gehituko zaio ibilgailuak eraman eta gordetzeagatik dagokion kuota, baldin eta eraman zirenetik berrogeita zortzi ordu igaro ondoren, beren gidari edo jabeek jaso ez badituzte / *La tarifa 1, se complementará con las cuotas correspondientes al depósito y guarda de los vehículos en el caso de que transcurran 48 horas desde su recogida sin haber procedido a retirarlos sus conductores o sus propietarios.*<br><br>Aipatutako kuotak honako hauek izango dira / *La cuantía de las referidas cuotas será la siguiente:* | |
| *Turismo, furgoneta, kamioneta eta antzeko ezaugarriak dituzten ibilgailuak, beren tonelaia 1500 kg. artekoa denean, eguneko edo aldiko* / Automóviles de turismo, furgonetas, camionetas y demás vehículos de características análogas con tonelaje hasta 1500 Kg., por cada día o fracción. | 10 |

**BIGARREN.-** Aurreko erabakia, hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, dagozkion erreklamazio edo oharpideak aurkez ditzaten.

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

**SEGUNDO.-** Someter a información pública, por plazo de treinta días hábiles, el acuerdo precedente a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran producirse.

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

**MOZIOA**

**12.- ASTE HONETAN GERTATUTAKO HERRIRA PLATAFORMAKO KIDEEN ATXILOKETEEI BURUZ EAJ- PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA**

EAJ-PNV udal taldeak Herrira plataformako kideen atxiloketei buruz aurkezturiko mozioaren berri emanik, mozioaren edukia honakoa delarik:

*"Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken urteetan. Aldaketa politiko sakona izan da ETA erakundeak erabaki eta adierazi izana 2011ko urriaren 20an bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera. Halaber, aldaketa funtsezkoa da ezker abertzaleak soilik bide politiko eta demokratikoen alde egiteko erabakia.*

*Herri hau, giza eskubide guztien onarpenean eta defentsan oinarrituz, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz eraiki behar dela, herri honen gehiengoak aspaldi egindako hautua da.*

*Aste honetan, "Herrira" plataformako kideak, atxilotu dituzte. "Dena ETA da" tesiari heutsiz egin dituzte atxiloketak, Euskal Herrian bakea finkatzeko bidean atzeraldia suposatzen dutelarik .*

*Euskal Herriko erakundeek eta gizartearen gehiengo nabarmenak euskal presoak jasaten ari diren oinarrizko eskubideen urraketak behin eta berriz salatu dituzte, legeak, zuzenbide internazionalak eta giza eskubideen deklarazioak presoei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea zilegia dela adieraziz.*

*Oinarrizko eskubideen etengabeko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak bizi duen soluzio bilaketarako. Soluzioa baitator batetik, oinarrizko eskubide ororen zapalketa gaitzestetik*

**MOCIÓN**

**12.- MOCIÓN QUE PRESENTA EL GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV EN RELACIÓN CON LA DETENCIÓN QUE HA TENIDO LUGAR ESTA SEMANA DE MIEMBROS DE PLATAFORMA HERRIRA**

Dada cuenta de la moción presentada por el grupo municipal EAJ-PNV en relación con la detención producida de miembros de la plataforma Herrira y cuyo tenor literal es el siguiente:

*"En Euskal Herria hemos vivido cambios políticos intensos en los últimos años. Ha sido un cambio profundo el dado por la organización ETA decidiendo y declarando el 20 de octubre de 2011 dejar definitivamente su actividad armada. Asimismo, es un cambio fundamental el que ha dado la izquierda abertzale decidiendo seguir única y exclusivamente las vías políticas y democráticas.*

*La mayoría de este pueblo hace tiempo que decidió que este pueblo hay que construirlo, basándose en la aceptación y defensa de todos los derechos humanos, desarrollando la paz y tomando como base la voluntad del pueblo.*

*Esta semana, han detenido a miembros de la plataforma " Herrira". Han hecho las detenciones basándose en la tesis de "Todo es ETA" y esto supone un retroceso en el afianzamiento de la paz en Euskal Herria.*

*La mayoría de la sociedad de Euskal Herria y las instituciones han denunciado una y otra vez la vulneración de derechos que están sufriendo los presos y presas vascas, declarando que es lícito defender los derechos que la ley, el derecho internacional y la declaración de los derechos humanos otorgan a los presos.*

*La vulneración sistematica de los derechos fundamentales, no ayudan en nada, en la busqueda de la solución que necesita nuestro pueblo. La solución llegará, por una parte mediante la*



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

*eta bestetik, gure Herriak bizi duen gatazka politikoa itxiko duen akordio politikoa lortzetik; beti ere gure Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzeko duen eskubide demokratikoa oinarri hartuta.*

*condena de la vulneración de los derechos fundamentales y por otra mediante el logro del acuerdo politico que cerrara el conclicto político que padece nuestro pueblo. Siempre y cuando, teniendo como base el reconocimiento democrático del derecho a decidir que tiene nuestro pueblo.*

*Erakunde politikoen ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarrizko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartze eta partehartze aldarrikapen demokratikoak; euskal gizartearen aniztasun politikoari zor zaion errespetuari eragiten diote zuzen zuzenean, eta baita gure herriko elkarbizitzari ere; eta guztiz urruntzen gaituzte euskal gizarteak behin eta berriz eskatzen duen normalizazio politiko eszenatokietatik.*

*Los procesos de ilegalización de organizaciones políticas, cercenan derechos fundamentales como son la ideología, la expresión, el derecho de reunión y participación y reivindicación democrática. Inciden directamente en el respeto que merece la pluralidad de la sociedad vasca, y tambien a nuestra convivencia; y nos aleja una y otra vez del escenario de normalización política que demanda la sociedad vasca.*

*Guzti hau kontutan izanik, udalbatza honi hurrengo hau onartu dezan proposatzen diogu:*

*Teniendo en cuenta lo anterior expuesto proponemos a este plenario para su aprobación lo siguiente:*

*1.-PPren Gobernuaren eta Auzitegi Nazionalaren estrategia politiko-judizial partekatua salatzen dugu, "dena ETA da" tesia aktibatzeagatik, ETAk duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren eta ETAren erabakiaren irrebertsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeko ardura politikoa bere gain hartu beharrean, aipatu taldearen ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabiltzalako.*

*1.- Denunciar la estrategia político-judicial compartida por el gobierno del PP y la Audiencia Nacional por activar el axioma "todo es ETA", siendo conscientes de que ETA declaró el cese definitivo de su actividad armada hace casi dos años y porque lejos de asumir la responsabilidad política de verificar la autenticidad e irreversibilidad de la decisión de ETA pretenden rescatar la existencia de la actividad de dicha organización.*

*2.- Halaber, euskal herritarron eskubide zibil eta politikoen errespetua eta atxilotutako pertsona guztien askatasuna, eskatzen ditugu".*

*2.- Asimismo exigimos el respeto a los derechos civiles y políticos que asisten a la ciudadanía vasca, así como la libertad de todas las personas detenidas".*

Alkate jaunak hartu du hitza, eta argitu du mozioa EAJ-PNV taldeak aurkeztu badu ere testua Bildu udal taldearekin adostu duela. Jarraitzeko, esan du aurreko astean Herrira taldeko zenbait kide atxilotu zituztela, eta bere ustez horrek ez duela bakerako bidea ekartzen. Esan du erakunde politikoak ilegaltzat jotzeko prozesuek ez dutela erreibindikazio demokratiko ideologikoak oztopatu besterik egiten, hau da adierazpen bideak moztu, eta horiek azken batean oinarrizko eskubideak direla. Aurkeztutako mozioa bi

Toma la palabra el Sr. Alcalde el cual aclara que, aunque la moción ha sido presentada por EAJ-PNV, el texto ha sido consensuado con el grupo municipal Bildu. Continúa diciendo que la semana pasada miembros de Herrira han sido detenidos y que en su opinión, actitudes así no contribuyen en el camino hacia la paz. Añade que los procesos de ilegalización de entidades políticas no hacen más que obstaculizar las reivindicaciones democráticas ideológicas, de expresión que al fin y al cabo son derechos fundamentales. La moción presentada se



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org

zutabetan oinarritzen da: Batetik, Auzitegi Nazionaleko estrategia politiko-judiziala, eta bestetik, euskal herritarren eskubide zibil-politikoenganako begirunearen erreibindikazioa, eta preso guztien askatasunaren erreibindikazioa.

Alvarez jaunak hartu du hitza, eta esan du harrituta dagoela EAJ-PNV alderdiak Bilduren alde ateratzen baita mozioan. Esan du bere taldea abstenitu egingo dela, bere ustez betiko gaira itzultzen ari baitira. Esan du berarentzat gaia orain dela bi urte amaitu zela, eta gero sortu diren eranskinak zenbaitek jokaera batzuk elikatu nahi izan dituztelako sortu direla. Esan du abstenitu egingo direla, ez baitute gaia gehiago korapilatzen duten eztabaidetan sartu nahi.

Elizalde jaunak hartu du hitza, eta esan du mahai gainean mozio bat dagoela, baina berak nahiko lukeela horren beharrik ez izatea gaur egungo egoeran. Esan du bi urte direla ETAk ekintza armatuak egiteari utzi ziola, eta geroztik gauza asko egin direla, baina ez aski. Bere iritziz azken atxiloketek izaera politikoa dute, eta bere buruari galdetzen dio ea zer bilatu nahi duten ekintza horiekin.

Ondoren Ochoteco jaunak hartu du hitza, eta esan du bera ere harritu egin dela mozio honen aurkezpenarekin, eta bere ustez testua Gipuzkoako euskal nazionalismoko zenbait pertsonak bultzatua dela. Esan du erahilketak izan direla, errealitatea errealitatea dela, eta jazarri egin behar dela delituak dauden heinean, ETA egon nahiz ez egon. Hausnartuz esan du benetako historia ezaguna dela: ez dago bizitutako errealitatea baldintza dezakeen gehiengo edo interes politikorik. Ezin da ahaztu zenbait alderdi politikok izandako papera, hau da, ETAko zenbait adar politikok izandakoa.

Garmendia jaunak hartu du hitza eta esan du testua poliki irakurriz gero ikusten dela ez dela ETA aipatzen. Mozioa idatzi da Herrira izeneko GKE batean atxiloketak gertatu direlako; erakunde horretan jendeak lan egiten du euskal presoak jasaten ari diren eskubide-urraketen aurka. Presoak milaka kilometrora daude,

fundamenta en dos pilares: por un lado, la denuncia de la estrategia político-judicial de la Audiencia Nacional y por otro lado, la reivindicación del respeto hacia los derechos civiles y políticos de los ciudadanos vascos y la libertad de todos los presos.

Interviene el Sr. Alvarez mostrando su extrañeza respecto a que EAJ-PNV apoye junto a Bildu la moción. Dice que su grupo se va a abstener porque considera que se está volviendo al tema de siempre. Añade que para él, el tema se acabo hace dos años y que los flecos que aparecen posteriormente se deben a que quizá algunos intentan alimentar ciertas actitudes. Dice que se van a abstener porque no quieren entrar en debates que enreden más el asunto.

Toma la palabra el Sr. Elizalde diciendo que encima de la mesa hay una moción pero que le gustaría que no hubiera necesidad de ella en la situación actual. Dice que desde hace dos años ETA dejó de llevar a cabo acciones armadas y que desde entonces se han hecho muchas cosas, pero no suficientes. En su opinión, las últimas detenciones responden a un impulso político y se pregunta qué es lo que se pretende provocar con este tipo de acciones.

A continución interviene el Sr. Ochoteco, diciendo que a él también le ha extrañado la presentación de esta moción y que en su parecer, el texto ha sido impulsado por personas concretas del nacionalismo vasco en Gipuzkoa. Añade que se han cometido crímenes, que la realidad es la realidad y que se tendrá que perseguir exista o no exista ETA mientras estén en vigor los delitos. Reflexiona diciendo que la historia real es la que es y que no hay mayorías políticas ni intereses políticos que puedan condicionar la realidad que se ha vivido. No se puede olvidar el papel que han jugado algunos partidos políticos, algunos brazos políticos de ETA.

Toma la palabra el Sr. Garmendia diciendo que si se lee el texto detenidamente, no se habla de ETA en ningún momento. La moción se ha redactado porque se han producido una serie de detenciones en una ONG llamada Herrira donde la gente se dedica a trabajar en contra de la vulneración de los derechos que están sufriendo los/las presos/as y



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 ✉ udala@hondarribia.org

familiak haraino joan behar dute, istripuak gertatzen dira, jendea gaixorik dago, eta jende hori atxilotu egiten da eta etarra balitz bezala tratatzen da.

vascos/as. Los presos están a miles de kilómetros, las familias tienen que desplazarse, se producen accidentes, hay gente enferma y a esta gente se la detiene y además se la trata como etarras.

Alkate jaunak hartu du hitza, eta esan du mozioaren asmoa Herrira erakundeaz hitz egitea zela, baina Ochoteco jaunaren hizketaldia entzunda iruditzen zaiola guztiari ETA izena ematen zaiola. Ondoren esan du ez duela mozioa Osoko Bilkurara ETAz hitz egiteko ekarri, Herrira erakundeaz hitz egiteko baizik, eta gustukoa badute nahiz ez badute, erakundeak presoen eskubideak defendatzeko eskubidea duela. Zera esan du, Espainiako gobernu guztiek ETArekin negoziatu badute jendea hiltzen ari zenean, ez duela ulertzen zergatik ezin den orain haiekin hitz egin, egiaztatzeko ea egia esaten duten, hiltzeari utzi dioten honetan. Ez daki zein den atxiloketa hauen oinarria, eta zein diren atxilotuei leporatzen zaizkien delituak. Herrira erakundearen lana gustukoa izan nahiz ez izan, aitortzen du guztiok ditugula eskubide berak legearen aurrean, eta horrenbestez Herrirak ere hala dituela.

Interviene el Sr. Alcalde diciendo que la intención de la moción era hablar de Herrira pero que tras escuchar la intervención del Sr. Ochoteco, le queda confirmado que a todo se le denomina ETA. Continuá diciendo que no se ha traido la moción al Pleno para que se hable de ETA, sino de la asociación Herrira, que aunque guste o no guste, tiene el derecho de defender los propios derechos de los presos. Añade que si todos los gobiernos que ha habido en España han negociado con ETA cuando se estaba matando a gente, no entiende por qué no se puede hablar con ellos para verificar si dicen la verdad ahora que se ha dejado de matar. No sabe en qué se fundamentan las detenciones producidas ni cuáles son los delitos que se imputan a los detenidos. Guste más o guste menos la actividad de Herrira, el Sr. Alcalde reconoce que todos tenemos los mismos derechos ante la Ley y que Herria también los tiene.

Aurkeztutako mozioa bozkatu ondoren, onartu egin da aldeko hamaika botorekin, aurkako batekin eta bi abstentziorekin

Sometida a votación la moción presentada, es aprobada por once votos a favor, uno en contra y dos abstenciones.

Alde bozkatu dute: Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Juan Luis Silanes Agirre, Katrin Martínez De la Valle, Jon Mikel Garmendia Múgica, Catherine J.A. Noblia Richard eta Ion Elizalde Caballero jaun-andreek.

Votan a favor: D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, Dª Lupe Olaskoaga Susperregi, Dª Amaya Gezala Ortiz, Dª Maite Pelaez Arregi, D. Juan Luis Silanes Agirre, Dª Katrin Martínez De la Valle, D. Jon Mikel Garmendia Múgica, Dª Catherine J.A. Noblia Richard y D. Ion Elizalde Caballero.

Aurka bozkatu du: Jose Miguel Ochoteco Aguirre

Vota en contra: D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre

Abstenitu egin dira: Jesús Ignacio Alvarez Yeregui eta Ramon Laborda Larzabal jaunak.

Se abstienen: D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui y D. Ramon Laborda Larzabal.

Ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz, EAJ-PNV udal taldeak Herrira plataformako kideen atxiloketei buruz aurkezturiko mozioa onartzea **ERABAKI DU,** eta horrenbestez:

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno,** por mayoría **ACUERDA** aprobar la moción presentada por EAJ-PNV en relación con la detención producida de miembros de la plataforma Herrira, y en consecuencia:



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 🖂 udala@hondarribia.org

**LEHENENGO.-** Hondarribiko Udalak PPren Gobernuaren eta Auzitegi Nazionalaren estrategia politiko-judizial partekatua salatzen du, “dena ETA da” tesia aktibatzeagatik, ETAk duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren eta ETAren erabakiaren irrebertsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeko ardura politikoa bere gain hartu beharrean, aipatu taldearen ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabiltzalako.

**PRIMERO.-** El Ayuntamiento de Hondarribia denuncia la estrategia político-judicial compartida por el gobierno del PP y la Audiencia Nacional por activar el axioma “todo es ETA”, siendo conscientes de que ETA declaró el cese definitivo de su actividad armada hace casi dos años y porque lejos de asumir la responsabilidad política de verificar la autenticidad e irreversibilidad de la decisión de ETA pretenden rescatar la existencia de la actividad de dicha organización.

**BIGARREN.-** Hondarribiko Udalak euskal herritarron eskubide zibil eta politikoen errespetua eta atxilotutako pertsona guztien askatasuna eskatzen du.

**SEGUNDO.-** El Ayuntamiento de Hondarribia exige el respeto a los derechos civiles y políticos que asisten a la ciudadanía vasca, así como la libertad de todas las personas detenidas.

**Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du hogei ordu eta berrogeita hamabost minutuan, neuk ziurtatzen dudan akta hau eginez.**

**Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las veinte horas y cincuenta y cinco minutos, extendiéndose esta acta que certifico.**

**O.E/ VºBº**
**ALKATEA/ El Alcalde**

**Aitor Kerejeta Cid**



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 🖷 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 🖂 udala@hondarribia.org